# BIZKAIKO METALA

## BIZKAIKO METALEAN LAN EGITEN DUGUNOK HEGO EUSKAL HERRIKO SOLDATA IGOERARIK TXIKIENA JASANGO DUGU

**Soldata-taulak % 2 baino ez dira igoko, KPIaren azpitik puntu bat baino gehiago.**

Bizkaiko metalaren hitzarmena sinatu zuten sindikatuek (CCOO, LAB eta UGT) % 2ko soldata-igoera adostu zuten 2024rako. Igoera hori aurreko urteetakoei gehituz gero, non KPIaren azpiko igoerak ere adostu ziren, Bizkaiko metalean langile klasearen pobretzea sendotzen du, enpresa-mozkinen kontura, horiek handitzen jarraitzen baitute.

Egoera hori ez dator bat Gipuzkoako metalaren egoerarekin, izan ere, Bizkaikoak baino % 20 eta % 47 arteko soldata handiagoak izanik, 2024ko igoera % 3,8koa izango da.

ELAren ustez, negoziazio kolektiboa da gure jendearen bizi-baldintzak hobetzeko tresnarik onena. Seriotasuna, borrokatzeko gaitasuna eta, batez ere, langileen aurrean zintzotasuna eskatzen ditu. Gainerako sindikatuek sinatutako akordioak, bai Bizkaiko metalean, bai Arabakoan, patronalaren neurrira egin ziren. ELAk enpresa hitzarmenen bitartez sektorialaren edukiak hobetzea lortzen ari da, hori da bidea. Etsipenaren aurrean: antolaketa eta borroka.



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Aktibatu Lortu Zaindu

# BIZKAIKO METALA

## QUIENES TRABAJAMOS EN EL METAL DE BIZKAIA PADECEREMOS EL MENOR INCREMENTO SALARIAL DE HEGO EUSKAL HERRIA

**Las tablas salariales solo se incrementarán un 2%, más de un punto por debajo del IPC**

Los sindicatos firmantes del convenio del metal de Bizkaia, CCOO, LAB y UGT acordaron para el año 2024 un incremento salarial del 2%. Si sumamos esta subida a las de los años anteriores donde también se acordaron incrementos por debajo del IPC, en el metal de Bizkaia se consolida el empobrecimiento de la clase trabajadora a costa de los beneficios empresariales, que continúan aumentando.

Esta situación contrasta con la del metal de Gipuzkoa, donde partiendo de salarios de entre un 20% y 47% superiores a los de Bizkaia el incremento para el 2024 será del 3,8%.

ELA considera que la negociación colectiva es el mejor instrumento para mejorar las condiciones de vida de nuestra gente. Exige seriedad, capacidad para confrontar y sobretodo honestidad ante la clase trabajadora. Los acuerdos rubricados por el resto de sindicatos tanto en el metal de Bizkaia, como el de Araba, fueron realizados a la medida de la patronal. Desde ELA estamos logrando mejorarlos en las empresas, ese es el camino. Ante la resignación: organización y lucha.

